TOKIKO GOBERNU BATZORDEA — JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
EGUNA / FECHA: 20/7/2016
HASIERA / INICIO: 20:05
AMAIERA / FINAL: 20:10

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA/ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdo:

**1.- Aurreko saioetako aktak.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zituen 2016ko ekainaren 15eko eta uztailaren 6ko saioetako aktak.

**1.º.- Actas de las sesiones anteriores.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar las actas de las sesiones de 15 de junio y 6 de julio de 2016.

**2.- Goiherriko bidetik zura ateratzearen arazoak.-**

Busturiatik kamioi astunak (gehienbat basoko produktuak ateratzetik datozenak) igarotzeak eragiten dituen arazoak aztertu zituen Tokiko Gobernu Batzordeak, hala nola:

- Biesko-Tribiskoerrota udal-bidea etengabe hondatzen ari da, eta ezin zaio errua garraio zehatz bati egotzi, bide hori etengabe erabiltzean sortutako kalteak direlako.
- San Bartolomé auzotik kamioiak igarotzean sortzen diren kalteak, bideak duen zabalera kontuan hartuta kamioiak handiegiak direlako.
- Altamira auzoko erdialdetik pasatzean sortzen diren eragozpenak (ikastetxe publikoaren parean).

Honako neurriren bat edo batzuk hartuz gero arazo nagusiak gutxituko liratekeen aztertu zen:

- Mapeko pistaren erabilera areagotzea eta ibilgailu astunak BI-3123 eskualde-errepidera bideratzea.
- Trafikoa Bermeora bideratzea (udalerri horretako hirigunetik trafikoa igarotzeak eragin ditzakeen arazoekin).
- Udalerriko errepideak erabiliko dituzten kamioien ardatzeko pisua eta luzera mugatzea.

Egokiena kaltetuekin hitz egitea zela adostu zen, zehazki esanda basoko produktuen garraioan lan egiten duten enpresekin. Beraz, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen enpresa horiekin kontaktuan jartzea hartu daitezkeen neurriak aztertzeko.

**2.º.- Problemática de la saca de madera por el camino de Goiherri.-**

La Junta de Gobierno Local analizó los problemas que ocasiona el paso por Busturia de camiones pesados (mayoritariamente procedentes de la saca de productos forestales), como son:

- Deterioro continuo del camino municipal Biesko-Tribiskoerrota, que no es imputable a un transporte concreto sino que se produce por el uso continuado del mismo.
- Daños producidos por los camiones a su paso por el Barrio de San Bartolomé, ya que las dimensiones de los vehículos son excesivos para el ancho del vial.
- Molestias por el paso por el centro del barrio de Altamira (frente al colegio público)

Se analizó si gran parte de esos problemas se reducirían si adoptase alguna o varias de las siguientes medidas:

- Incrementar la utilización de la pista de Mape dirigir los vehículos pesados haciar a la carretera comarcal BI-3123.
- Dirigir el tráfico hacia Bermeo (con los problemas que pudiera ocasionar a su paso por el casco urbano de esa localidad).
- Limitar tanto la longitud como el peso por eje de los camiones utilizados en los caminos municipales.

Considerando que lo más conveniente es consultar con los afectados, en particular con las empresas dedicadas al transporte de productos forestales, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó ponerse en contacto con ellas para estudiar las posibles medidas a adoptar.

**3.- Eskualdeko Enplegu Plana.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen onartzea Bermeoko eta Gernikako Behargintzak proposatutako proiektuak Eskualdeko Enplegu Planean sartzeko eta honakoak

**3.º.- Plan de Empleo Comarcal.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar los proyectos propuestos por los Behargintza de Bermeo y Gernika, para la incorporación en el Plan Comarcal de Empleo

direnak:

- Lur Bizi Busturialdeko Nekazaritza eta Abeltzantza sektoreen Dinamizazio, Landa Ingurumen Lan Postuak sortzeko”.
- Baliabide eta Turismo-jardueren eta Espazio Publikoen Hobekuntzaren inbentarioa burutzea.

y que son:

- Lur-Bizi Busturialdeko Nekazaritza eta abeltzantza sektoreen Dinamizazio, Landa Ingurumen Lan Postual sortzeko”
- Realización de Inventarios y Recursos y Actividades Turísticas y de Mejora de Espacios Públicos.

**4.- Harri Berri Elkartearen eskaera.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, erabaki zuen “Harri Berri Elkartea”ri onartzea Santiago eta Santa Ana jaietako idi probak antolatzeko egindako material eskaera batzuk, eta bai 3.000 euroko diru laguntza ere (%80 jarduera egin aurretik ordainduko da, eta gainerakoa, likidazioa aurkeztu eta gero).

**4.º.- Solicitud de Harri Berri Elkartea.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder a “Harri Berri Elkartea” varias peticiones de materiales realizadas para la organización de las pruebas de bueyes de fiestas de Santiago y Santa Ana, así como una ayuda económica de 3.000 € (que se abonará el 80% con anterioridad a la actividad y el resto, previa presentación de la liquidación).

**5.- M. C. E.ren idazkia.-**

M. C. E. jaunaren idazkia ikusi zen. Bertan, Pub Teniseko aparkalekuan asteko egun guztietan kalean arropa saltzeko baimena eskatu zuen. Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaria ezestea, jabetza pribatuko eremua den arren, erabilera publikoa delako. Beraz, Cortés Echevarria jaunari udalak asteazkenero Axpe plazan antolatzen duen azokan arropa saltzeko iradoki dio.

**5.º.- Escrito de M. C. E.-**

Visto el escrito de M. C. E. solicitando autorización para la venta ambulante de ropa en el aparcamiento del Pub Tenis todos los días de la semana, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó denegar la petición, por tratarse de un espacio de propiedad privada pero de uso público, y sugerirle que se incorpore al mercadillo semanal que organiza el Ayuntamiento todos los miércoles en la plaza en Axpe.

**6.- A. A. O.ren ibilgailuaren zerga-salbuespena.-**

Kontuan hartuta A. A. O.k aurkeztutako idazkia, 2017. urterako eta hurrengoetarako BI-0106-PS matrikuladun beraren ibilgailuari dagokionez Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren salbuespena eskatzeko, fabrikatu zenetik gutxienez 25 urte igaro direla-eta, Zerga hori arautzen duen Udal Ordenantza Fiskalaren laugarren artikuluan ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera onartzea.

**6.º.- Exención del impuesto del vehículo de A. A. O.-**

Dada cuenta del escrito presentado por A. A. O., por el que solicita la exención, para el año 2017 y sucesivos, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, del turismo de su propiedad, matrícula B-0106-PS, por ser un vehículo con una antigüedad mínima de 25 años desde la fecha de su fabricación, en aplicación de lo dispuesto en el artículo cuarto de la Ordenanza Fiscal municipal reguladora del Impuesto, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la solicitud presentada.

**7.- Hirigintza-baimenak.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak, igorritako txosten juridiko eta teknikoak ikusita, aho batez erabaki zuen honako hirigintza-baimenak ematea, bertan ezarritako baldintzetan, horiek eskatzaileari jakinarazi behar izanda:
1.- M. C. B. O.ri, San Cristóbal 15.eko jabeen erkidegoa ordezkatzen duena (48/16 esp.), eskailera-igogailu aulkia jartzeko, 16.593 euroko aurrekontuarekin.
2.- Axpe 160.eko jabeen erkidegoari (53/16 esp.), Axpeko auzoko 160. zenbakiko balkoien aurreko aldea konpontzeko, 2.200 euroko aurrekontuarekin.

**7.º.- Licencias urbanísticas.-**

La Junta de Gobierno Local, vistos los informes emitidos, acordó, por unanimidad, conceder las siguientes licencias urbanísticas, que quedan sometidas al cumplimiento de las condiciones establecidas en el mismo, de cuyo contenido se deberá dar traslado al solicitante:
1.º.- M. C. B. O., en representación de la Comunidad de propietarios San Cristóbal 15, (Expte. 48/16), para colocación de silla salvaescaleras, con un presupuesto de 16.593 €.
2.º.- Comunidad de propietarios Axpe, 160 (Expte. 53/16), para reparación del frente de los balcones, en el barrio de Axpe n.º 160, con un presupuesto de 2.200 €.

| 8.- Zura ateratzeko abala itzultzea.- | 8.º.- Devolución de aval por saca de madera.- |
|---|---|
| Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Central Forestal, S.A.k aurkezturiko eskaera onartzea, “Atxirike” bidea erabiliz M. M. O. M.ren “Atxirika” mendiko zura ateratzeko jarritako 3.000 €-ko fidantza itzul dakion. | La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la solicitud presentada por Central Forestal, S.A. para la devolución de la fianza de 3.000 € que tiene depositada para la saca de madera del monte “Atxirika”, utilizando el camino de “Atxirike”, propiedad de M. M. O. M. |

| 9.- Desgaitasunak dituztenen txartela.- | 9.º.- Tarjeta de minusválidos.- |
|---|---|
| F. J. d. D. R.k egindako eskaera ikusi eta gero, eman zuen dokumentazioa egiaztatu zen eta ikusi zen 50/16 zenbakidun Dekretuan zehaztutako baldintzak betetzen dituela. Beraz, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen desgaitasunak dituztenentzako aparkaleku-txartela urte beterako ematea.<br>Horrez gain, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen mota honetako hurrengo espedienteak alkatetzak dekretu bidez zuzenean erabaki ditzala. | Vista la petición realizada por F. J. d. D. R., y comprobado que la documentación aportada cumple los requisitos establecidos en el Decreto 50/16, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó concederle tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad y con una validez de un año.<br>Asimismo la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó que, en lo sucesivo este tipo de expedientes se resuelva directamente por la alcaldía mediante decreto. |

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde,

Fdo: Aitor Aretxaga Telletxea

Idazkaria/El Secretario,

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez